2026ko Urtarrila-Maiatza
Enero-Mayo 2026

Ikuskizunen egitaraua | Programa de espectáculos

# ermuantzokia



**URTARRILAREN 2an ENERO**

# Go!azen 12.0. PAUSOKA

**A las 17:00 eta 19:00etan Sarrera / Entrada: 6€**

Egilea / Autor: **Xabi Zabaleta** Zuzendaritza / Dirección: **Itziar Gómez** Zuzendari musikala / Dirección musical: **Jokin Pinacho**
Iraupena / Duración: **70 min.** + **5** urte / años

*Maitanek ideia zoragarri bat garatu du aurten: Basakabi "bigarren aukeren" udalekua bilakatu du. Kontua da… Garaziri ez diola bere planen berri eman, eta Basakabi arazoak dituzten gaztez bete da. Hemendik aurrera, udara zaila biziko dute Garazik eta Maitanek Basakabin. Etorri diren gazte berriek iskanbilak sortuko dituzte eta, dena zailago egiteko, Kuxkuxero izeneko pertsona batek, ikasle guztien inguruko informazioa zabalduko du sareetan zehar. Maitasuna, anaien arteko gorrotoa, mendekua eta, jakina, abesti berri ugari!*

Maitane ha desarrollado este año una idea maravillosa: ha convertido a Basakabi en un campamento de verano de "segundas oportunidades". La cuestión es… que a Garazi no le ha comunicado sus planes, y a Basakabi se le ha llenado de jóvenes con problemas. A partir de ahora, Garazi y Maitane vivirán un verano complicado en Basakabi. Los nuevos jóvenes que han venido causarán tumulto y, para hacerlo todo más difícil, una persona llamada Kuxkuxero difundirá por las redes información sobre todo el alumnado. ¡Amor, odio fraternal, venganza y, por supuesto, muchas canciones nuevas!



URTARRILAREN **16**an ENERO

ANTZERKIA / TEATRO
(Euskaraz)

# Aitatxo. ANAKOTZ LASARTE

**A las 20:30ean Sarrera /Entrada: 10 €**

Egilea / Autor: **Anakotz Lasarte** Zuzendaria / Dirección: **Telmo Irureta** Aktoreak / Intérpretes: **Álex Tello eta Unax Uralde.**
Iraupena / Duración: **45 min.**



*Semea galdu duen aita baten ikuspegitik, doluari buruzko gogoeta antzerkiratua. Hildako semearekin, elkarrizketa. Doluaren ikuspegi ezberdin bat, aita ta semearen gogoetatik.*

*Benetako gertaeran oinarrituta. Bi ume hil zitzaien familia baten historioa. Aitak, galduetako seme batekin dituen elkarrizketa batzuen bitartez, dolua, maitasuna eta bizitzarekin aurrera egiteko indarra erakusten digu.*

*Doluaren bidea, onarpenaren bidea, errealitatearen bidea. Bizitza, datorren bezala onartu.*

Basada en un hecho real. Historia de una familia en la que murieron dos niños. El padre, a través de las conversaciones con un hijo perdido, nos muestra el duelo, el amor y la fuerza para seguir adelante con la vida.El duelo, la aceptación, el camino a la realidad. Asumir la vida como viene.

URTARRILAREN **17**an ENERO

CONCIERTO DE BLUES KONTZERTUA

# Haylen

**A las 20:00etan Sarrera /Entrada: 10 €**

**Lobiano Kultur Gunean**

*Haylen frantziarraren proposamena blues, soul eta rock & roll eraginak uztartzen dituen denboran barrena eskaintzen digun bidaia da. 2023an lehen saria irabazi zuen Cahors-eko Blues Jaialdian. Agerlekuaren gainean edo estudioan, Haylenek artista sutsu eta egiazkoaaren eredua dugu. Bere ahots talentuak, kitarrarekin duen maisutasunak eta karisma naturalak musika garaikidearen funtsezko figura bihurtzen dute, bere publikoa unibertso batera eramateko gai: abesti bakoitza bidai bat, emanaldi bakoitza ahaztezineko esperientzia bat.*

La propuesta musical de la francesa Haylen fusiona sus influencias de blues, soul y rock & roll. En 2023, ganó el primer premio en el Festival de Blues de Cahors. Ya sea sobre el escenario o en el estudio, Haylen encarna a una artista apasionada y decididamente auténtica. Su talento vocal, su maestría con la guitarra y su carisma natural la convierten en una figura esencial de la escena musical contemporánea, capaz de transportar a su público a un universo donde cada canción es un viaje y cada actuación, una experiencia inolvidable.



**URTARRILAREN 23an ENERO**

# Dulcinea. PALOMA SAN BASILIO

**A las 20:30ean Sarrera / Entrada: 15 €**

Egilea eta zuzendaria / Autor y director: **Juan Carlos Rubio** Pianoa: **Julio Awad**
Iraupena / Duración: **85 min.**

*Dulcinean Paloma San Basiliok abestuko du, nola ez, eta pianoan bere bizitzan den jenio batek lagunduta: Julio Awad. Baina, batez ere eta beste ezeren gainetik, Dulcinean Palomak INTERPRETATUKO du, eta letra larriz, munduko zaldun ibiltari ospetsuenaren topiko eta ametsen kolpetik sortutako emakume ideal hori, orain bere historia beste angelu batetik kontatzen diguna, berak bakarrik ezagutzen duen horretatik, zalditeriako liburuek (oso bikainak izan arren) jaso ezin izan dutena. Eta umorez, minez, ironiaz eta zintzotasunez egiten du.*

*Publikoarekin zamalkatzea besterik ez zaigu geratzen, eta, erraldoien errotak bereiziz, mito baten alderik pertsonalena erakustea, Kixoteren itzaletik ihesi, azkenean bera izateko eta bere bizitzaz hitz egiteko eta,bide batez, gureari errepaso on bat emateko aukera zoragarria duena.*

En Dulcinea Paloma San Basilio va a cantar, cómo no, y acompañada al piano por un genio imprescindible en la vida de ambos: Julio Awad. Pero, sobre todo y por encima de todo, en Dulcinea Paloma va a INTERPRETAR, y con mayúsculas, a esa mujer ideal, forjada a golpe de tópicos y ensoñaciones del caballero andante más famoso del mundo, y que ahora nos cuenta su historia desde otro ángulo, ese que solo ella conoce, el que los libros de caballería (por muy geniales que sean) no han sido capaces de recoger. Y lo hace con humor, con dolor, con ironía y con una absoluta sinceridad.

Solo nos queda cabalgar con el público y, distinguiendo molinos de gigantes, mostrar el lado más personal de un mito que, escapando de la sombra del Quijote, tiene al fin la fabulosa ocasión de ser ella misma y hablarnos de su vida y, de paso, dar un buen repaso a la nuestra.



URTARRILAREN 30ean ENERO

ANTZERKIA / TEATRO

# El lenguaje de las flores. LA MAPATXA TEATRO

A las 20:30ean Sarrera / Entrada: 10 €

Dramaturgia: **Unai Izquiedo** Zuzendaritza / Dirección: **Getari Etxegarai** Antzezleak / Intérpretes: **Mikel Losada, Olatz Ganboa, Unai Izquierdo y Getari Etxegarai.** Musikaria / Músico: **Ibon Belandia** Iraupena / Duración: **80 min**

*Itxaropenen gaitik abiatuta, Lorcaren "Doña Rosita la soltera" antzezlana oinarri, aro digitaleko maitasunari buruzko gogoeta egiten du lanak.*

*Komediaren eta samurtasunaren artean, "Loreen hizkuntza" lanak pantailen erdian argia nola bilatzen dugun aztertzen du, mundu hiperkonektatu batean loturak nola loratzen eta zimeltzen diren. Desioari, bakardadeari eta lotzeko modu berriei buruzko begirada poetiko eta garaikidea da. Maitasuna Tinderren garaian.*

Partiendo del tema de las expectativas en "Doña Rosita la soltera" de Lorca, la obra reflexiona sobre el amor en la era digital. Entre la comedia y la ternura, 'El lenguaje de las flores' explora cómo buscamos luz en medio de las pantallas, cómo florecen y se marchitan los vínculos en un mundo hiperconectado. Una mirada poética y contemporánea sobre el deseo, la soledad y las nuevas formas de vincularse. El amor en los tiempos de Tinder.



OTSAILAREN 6an FEBRERO

KONTZERTUA / CONCIERTO

# Puño Dragón

A las 20:30ean Sarrera / Entrada: 12 €

*Puño Dragón rock alternatiboko talde asturiarra da, 2021ean sortu zena eta geratzeko iritsidena. Originalak, benetakoak eta kementsuak, Puño Dragón taldeak nortasun propioa duen proposamen musikala aurkezten du. Bere iruditeria musikal berezia rock tradizionaletik elikatzen da, baina egungo estilora garamatzaten sonoritateak gehitzen ditu.*

*"Juegos Violentos" lehenengo albuma bere bereizgarri den soinu indartsuaren beste adibide bat da, erritmo gogorrez betetako atmosfera bizia sortuz, letra oso zainduekin, askotan gai sakon eta emozionalak jorratzen dituztenak, ez ironia apur bat gabe..*

Puño Dragón es un grupo asturiano de rock alternativo que se formó en 2021 y que ha llegado para quedarse.

Originales, auténticos y enérgicos, Puño Dragón presentan una propuesta musical con identidad propia. Su particular imaginario musical se nutre del rock tradicional, pero añade sonoridades que nos llevan a un estilo más propio del presente.

Su álbum "Juegos Violentos" es una muestra más del potente sonido que les caracteriza, creando una atmósfera intensa llena de ritmos contundentes, con letras muy cuidadas que a menudo abordan temas profundos y emocionales, no sin cierta ironía.



# Amama. AUKERAN

**A las 17:00etan Sarrera / Entrada: 6 €**

Gidoia / Guion: **Arkaitz González** Zuzendaritza / Dirección: **Edu Muruamendiaraz** Dantzariak / Bailarines/as: **Kimetz Cabanillas, Ane Etxebarria, Laida Egaña, Unai Iraola, Maier Muruamendiaraz, Nahikari Sánchez, Uxue Sánchez, David Serrano** Antzezlea / Intérprete: **Loli Astoreka** Iraupena / Duración: **50 min. + 4** urte / años

*Aukeran Dantza Konpainia haurren mundura hurbiltzen ari da espresuki, errespetuz eta gogotsu. Ipuin tradizional zaharren irakurketa berritua, bertaratutakoentzako bidaia ekarriko duten koreografia berriekin batera. Gure herriko geografia ezberdinetan barrena eramango gaitu, pertsonaia harrigarriekin.*

***Haurrentzako eta helduentzako ikuskizuna***

La compañía de danza Aukeran se sumerge en el mundo infantil de manera respetuosa y entusiasta, a través de una lectura renovada del cuento tradicional, con coreografías novedosas que trasladarán a los asistentes a las diferentes geografías de nuestra Euskal Herria, con increíbles personajes.

**Espectáculo para niños/as y mayores.**







# Fabiolo Connection. RAFA MAZA

**A las 20:30ean Sarrera /Entrada: 10 €**

Egileak / Autores: **Rafael Maza y Alberto Gálvez** Zuzendaritza / Dirección: **Rafael Maza** Irapena / Duración: **90 min.**



*Fabiolo, bost kontinenteetako aberaskumerik lotsagabeena, arabiar emirerri boteretsu bateko xekearen alabari tenis eskolak emateko kontratatua izan da. Mila gau eta bat gehiagoko giroak liluratuta, gure hamalau gogokoenak algoritmoen misterioa ezagutuko du, xeke itxurak egiten dituzten hackerrak eta errealitate bikoitz batera konektatuta egotera behartzen gaituen mundu teknologiko baten atzean ezkutatzen. Nazkatuta zaude «looser» izateaz? Ba al du zentzurik «winner» izan nahi izateak, edo gehienez ere «koloretako looserrak» izatea baino ez zaigu geratzen big data bateko putzuan? Zeren zain zaude beraz, basamortuan zehar zeure bidaia egiteko?*

Fabiolo, el pijo más irreverente de los cinco continentes, es contratado para dar clases de tenis a la hija del jeque de un poderoso emirato árabe. Subyugado por una atmósfera de mil y una noches, nuestro pijo preferido descubrirá el misterio de los algoritmos, hackers que se hacen pasar por jeques y aquello que se esconde detrás de un mundo tecnológico que nos obliga a estar conectados a una doble realidad. ¿Estás harto de ser un “looser”? ¿Tiene sentido aspirar a ser “winner” o a lo sumo solo nos queda ser “loosers de colores” en el pozo de un big data? ¿A qué esperas entonces para hacer tu propia travesía por el desierto?

**OTSAILAREN 21ean FEBRERO**

CONCIERTO DE BLUES KONTZERTUA

# The Hoodoo Doctors

**A las 20:00etan  Sarrera /Entrada: 10 €**

**Lobiano Kultur Gunean**

*The Hoodoo Doctors laukote elektriko indartsua da, eta blues gordin eta errokoaren aldeko apustua egiten du. The Hoodoo Doctors Mississippiko deltaren musikari egindako omenaldi bat da. Errepertorioa Hoodoo gaiari hartua da, urteetan zehar afroamerikar herriaren nortasunaren ikur izan ziren praktika magikoei buruzkoa: soinu horrek arbasoen garbitasuna bilatzen du.*

*Generoaren amorratuez eta musikari bikainez osatutako laukote honek zuzeneko sendoa du, eta kontzertu guztietan bluesaren tradizioaren onena zehaztasun handiz berrikusten eta eguneratzen dute, juke joint estatubatuar mitiko haien atmosferan eta giroan murgilduz, larre dendetan alegia.*

The Hoodoo Doctors constituyen un potente cuarteto eléctrico que apuesta por el blues crudo y de raíz. Con un repertorio que gira en torno a la temática del Hoodoo, aquellas prácticas mágicas que durante años sirvieron de seña de identidad al pueblo afroamericano, y un sonido que busca la pureza de lo ancestral, The Hoodoo Doctors se concibe como un homenaje a la música del delta del Mississippi.

Un cuarteto formado por fanáticos del género, además de excelentes músicos, con un contundente directo que, en todos sus conciertos, revisan y actualizan lo mejor de la tradición bluesera con enorme precisión, sumergiéndonos en la atmósfera y el ambiente de aquellos míticos juke joints estadounidenses.



**OTSAILAREN 27an FEBRERO**

ANTZERKIA / TEATRO

# Pero no se lo digas.

MIC PRODUCCIONES

**A las 20:30ean  Sarrera /Entrada: 15 €**

Egilea / Autor: **Ferrán González** Zuzendaritza / Dirección: **Borja Rodríguez** Antzezleak / Intérpretes: **Agustín Jiménez, Sara Escudero, César Camino** Iraupena / Duración: **90 min.**

*Laura eta Paco senar-emazteek Ramon lagunaren bisita jasotzen dute afaltzeko, azken aldian maitasun-haustura jasan baitu. Paco limoi batzuk erostera jaisten den bitartean, Laura bere lagunarekin itotzen da aitorpenen (eta whiskyen) ilara amaigabe batean, begiak platerak bezala zabalaraziko dizkigutenak, bere argudioen absurdoa -eta batzuetan eldarnioa- ikusita. Errealitateak fikzioa gainditzen du. Paco superretik itzultzen denean, gauzak ez dira hobetzen: Laura lurrean dago, konorterik gabe, eta Pacok emazteak esandako guztia berresten du.*

Laura y Paco son un matrimonio que recibe la visita para cenar de su amigo Ramón, quien últimamente ha sufrido una ruptura amorosa. Mientras Paco baja a comprar unos limones, Laura se desahoga con su amigo en una hilera interminable de confesiones (y de whiskys) que nos harán abrir los ojos como platos, ante lo absurdo -y en ocasiones delirante- de sus argumentaciones. La realidad supera a la ficción. Cuando Paco vuelve del súper, la cosa no mejora: Laura yace en el suelo inconsciente, mientras Paco corrobora todo lo que su mujer ha contado.



**MARTXOAREN 6an MARZO**

# Bely Basarte

**A las 20:30ean  Sarrera /Entrada: 15 €**



*Madrildarra, konpositorea, abeslaria eta ekoizlea, Bely Basartek goxotasun, gordintasun eta zintzotasun artean eraiki du bere musika unibertsoa.*

*Bere bidaia duela hamarkada bat baino gehiago hasi zen, YouTuben autoekoitzitako bertsioak partekatzen zituenean, munduko toki guztietako milioi erdi jarraitzaile baino gehiago bereganatuz.*

*Harrezkero, La Bellako live action eta Disneyko piztia bezalako lekuetan, herrialde osoko jaialdi eta aretoetan eta 2023ko Goya sarietako In memoriam hunkigarrian entzun da bere ahotsa.*

*Udazken honetan, Belyk estudioko hirugarren albuma aurkeztuko du, bere alderdi guztiak biltzen dituen lana: samurtasuna, zauria eta musikaren bidez birsortzeko indarra.*

Madrileña, compositora, cantante y productora, Bely Basarte ha construido su universo musical entre dulzura, crudeza y honestidad.

Su viaje comenzó hace más de una década, cuando compartía versiones autoproducidas en YouTube, conquistando a más de medio millón de seguidores de todas partes del mundo.

Desde entonces, su voz ha resonado en lugares como el live action de La Bella y la Bestia de Disney, festivales y salas de todo el país o el emotivo In Memoriam de la gala de los Premios Goya 2023.

Este otoño, Bely presenta su tercer álbum de estudio, un trabajo que contiene todas sus facetas: la ternura, la herida y la fuerza de renacer a través de la música.

**MARTXOAREN 13an MARZO**

# Marcela. CELIA FREIJEIRO

**A las 20:30ean Sarrera /Entrada: 12 €**

Egilea/ Autora: **María Folguera** Zuzendaria / Directora: **Leticia Dolera** Iraupena / Duración: **50 minutos**

*On Kixote Mantxakoaren XVI. kapitulutik aurrera, antzezlan honek Marcela artzaina dakar oholtzara, emakumezko pertsonaia indartsu eta askea, gure orainarekin modu irmoan hitz egiten duena.*

*Gizon bat hilda agertu da: Grisostomo. Emakume bati leporatu diote haren heriotza: Marcelari. Artzainek hari buruzko susmoak dituzte. Ez zaie haren edertasuna gustatzen, ezta haren harrotasuna ere. 1605ean gaude eta denek uste dute zigorra merezi duela. Baina Marcelak ez du men egingo eta bere buruaren defentsan jardungo du.*

*Cervantesen pertsonaiarik ospetsuenetako bat da Marcela. Mito hau argitzen duten suak ezagutuko ditugu egungo hiru sortzaileren eskutik (Leticia Dolera, Celia Freijeiro eta María Folguera)*

A partir del capítulo XVI de Don Quijote de la Mancha, esta obra trae a escena a la pastora Marcela, un personaje femenino fuerte y libre que dialoga de manera contundente con nuestro presente.

Un hombre ha aparecido muerto: Grisóstomo. Una mujer ha sido acusada de su muerte: Marcela. Los pastores sospechan de Marcela. No les gusta su hermosura, ni su orgullo. Estamos en 1605 y todos creen que merece un castigo. Pero Marcela no acata la norma y habla en su propia defensa.

Marcela es uno de los personajes más célebres de Cervantes. De la mano de tres creadoras actuales, Leticia Dolera, Celia Freijeiro y María Folguera, descubriremos los muchos fuegos que iluminan este mito.



**MARTXOAREN 20an MARZO**

# R & J. LA DRAMÁTICA ERRANTE

**A las 20:30ean Sarrera /Entrada: 12 €**

Egilea eta zuzendaria /Autora y directora: **María Goiricelaya** Antzezleak /Intérpretes: **Aitor Borobia Nagore González. Luix Mitxelena, Ane Pikaza, Egoitz Sánchez.** Iraupena / Duración: **100 min**



*R & J Shakespeareren maitasun tragikoaren eta orainaldiko loturen arteko elkarrizketa da. Maitasunaz hitz egiteko abiapuntua da, emozioen arintasuna, sare sozialak eta maitatzeko modu ugari dauden garaietan. Garai guztietako maitasun-istorio ospetsuenaren berrikuspena da, egungo ikuspegi aske, garaikide eta zirraragarritik. Maitasun-paradigma berri baten bilaketa grinatsua da. Gaur egun, Veronako balkoia telefono-pantaila bat da, eta maitasun erromantikoa erortzear dagoen jokabide-eredu bat.*

R&J es un diálogo entre el amor trágico de Shakespeare y los vínculos diversos del presente. Es el punto de partida para hablar del amor en tiempos de fluidez emocional, de redes sociales y de múltiples formas de amar. Es la revisión de la historia de amor más famosa de todos los tiempos desde un enfoque actual, libre, coetáneo y emocionante. Es la búsqueda apasionada de un nuevo paradigma de amor. Hoy el balcón de Verona es una pantalla de teléfono y el amor romántico un modelo de conducta en ruinas.

**MARTXOAREN 21ean MARZO**

# Jo Buddy

**A las 20:00etan Sarrera /Entrada: 10 €**

**Lobiano Kultur Gunean**

*Jussi "Jo' Buddy" Raulamo abeslari, gitarrajole eta konpositore finlandiarrak bere sorterrian azaldutako blues musikari gehienekin jo du, zer esanik ez Estatu Batuetara egindako erromesaldietan.*

*Zuzeneko errepertorio malgu eta moldakor hori jatorrizko abestietan oinarritzen da gehienbat, baina estilo propioarekin, eta Jo 'Buddyren obra balitz bezala entzuten da, ez beste inorena…"Garai Ederren" miresle baten grazia.*

*Musikaren errepidean hartutako berrogei urteko esperientziak, hamasei herrialdetan emandako milaka zuzenekoek eta grabaketa saio ugariek bere belaunaldiko rooter talentudun eta nabarmenetako bat bezala perfekzionatu dute*

El cantante, guitarrista y compositor finlandés Jussi "Jo' Buddy" Raulamo ha tocado con casi todos los músicos de blues que pasaron por su país y más en sus peregrinaciones a Estados Unidos.

Su versátil repertorio en vivo se basa fundamentalmente en sus canciones originales con estilo propio y suena como si no fuera de nadie, sino como obra de Jo' Buddy, admirador de "los Buenos Tiempos".

40 años de experiencia en la carretera, con miles de directos en 16 países e innumerables sesiones de grabación, lo han perfeccionado como uno de los rooters más talentosos y destacados de su generación.





MARTXOAREN 27an MARZO

# Zerua lapurtu dute.

PORROTX, MARIMOTOTS, PUPU ETA LORE

A las 17:00 y a las 19:00etan
Sarrera / Entrada: 6 €

*Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore arduratuta daude izarrik ikusten ez dutelako. Zer gertatu da zeruarekin? Lapurtu egin al digute? Birtxi farozainaren laguntzaz urdin infinitura abiatu dira izarren bila… unibertsoaren sekretuak ezagutzera, urrunera begiratuz barrura begiratzeko! Etorri nahi?"*

Porrotx, Marimotots, Pupu y Lore están preocupadas porque no ven estrellas. ¿Qué ha pasado con el cielo? ¿Nos lo han robado? Con la ayuda del farero Birtxi se lanzarán al azul infinito en busca de estrellas... para descubrir los secretos del universo, para mirar adentro mirando a lo lejos. ¿Quieres venir?.

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO INFANTIL (Euskaraz)



APIRILAREN 17an ABRIL

# Sustrai. ZIRKUSS

A las 20:30ean Sarrera /Entrada: 12 €

Zuzendaritza artistikoa / Dirección artística: **Lander Briones** Koreografoak: **Gill Harush, Maialen Alberro y Lander Briones** Artistak: **Asvin Lopez, Toni Gutierrez, Miren Barrena, Alexander Sierra, Paloma Farga, Iñigo Arroyo, Olivia Bernardo, Matthias Elgeta , Dominika Kzymowska** Iraupena / Duración: **70 min.**

*ZirKuSS taldearen Sustrai lana zirku garaikideko ikuskizun zirraragarri eta hunkigarria da, goi mailako akrobaziak dantzarekin eta dramaturgia indartsuarekin uztartzen dituena. Diziplina anitzeko esperientzia eskaintzen du, zirku tradizionalaren mugei aurre egiten diena, eta helduek, txikiek eta gazteek gozatu egingo dutena, ikusizko hedapen eta hedapen fisiko ikaragarriari esker. Nortasunari eta gure sustraiei buruzko hausnarketarako gonbidapena, arnasarik gabe utziko zaituena.*

Sustrai, de ZirKuSS, es un espectáculo impactante y conmovedor de circo contemporáneo que fusiona acrobacias de alto nivel con danza y una potente dramaturgia. Ofrece una experiencia multidisciplinar que desafía los límites del circo tradicional, y que tanto personas adultas como txikis y jóvenes disfrutarán gracias a su impresionante despliegue visual y físico. Una invitación a la reflexión sobre la identidad y nuestras raíces, que te dejará sin aliento.

ZIRKO IKUSKIZUNA / ESPECTÁCULO DE CIRCO



**APIRILAREN 24an ABRIL**

# Queralt Lahoz

**A las 20:30ean Sarrera / Entrada: 12€**

*Queralt Lahoz Espainiako musika-eszena osoan oraina eta etorkizuna duen artistetako bat da. Egungo proposamen apurtzaile eta erakargarrienetako bat erakutsiz, gero eta ospe handiagoa hartzen ari da gure mugetatik haratago. Bere musikan, soinu latinoak, errokoak eta hiritarrak zeharkaturik, flamenkoa, hip hopa edo pop elektronikoa bezalako generoek graziaz eta naturaltasunez hitz egiten dute beren jatorri flamenko eta paisaia pertsonaletatik berez irteten diren kopla eta boleroen aura baten inguruan.*

Queralt Lahoz es una de las artistas con más presente y futuro de toda la escena musical nacional. Exhibiendo una de las propuestas más rompedoras y atractivas del momento, extiende también su creciente fama más allá de nuestras fronteras. En su música, atravesada por los sonidos latinos, de raíz y urbanos, géneros como el flamenco, el hip hop o el pop electrónico dialogan con gracia y naturalidad sobre un aura de coplas y boleros que emergen de manera espontánea de sus orígenes flamencos y de sus paisajes personales.



**MAIATZAREN 8an MAYO**

# Desobedienteak 18/98. TANTTAKA

**A las 20:30ean Sarrera / Entrada: 10€**

Egilea / Autora: **María Goiricelaya** Zuzendaria / Dirección: **Fernando Bernués / Mireia Gabilondo** Antzezleak /Intérpretes: **Miren Arrieta / Ainhoa Enparantza, Iñigo Azpitarte, Klara Badiola, Kepa Errasti, Omar Somai.** Iraupena / Duración: **85 min.**

*DESOBEDIENTEAK 18/98 antzezlanak konkretua unibertsal egiten du, eta desobedientzia zibilaz hitz egingo digu, ez bakarrik demokraziarekin eta haren printzipioekin bateragarri den tresna gisa, baizik eta demokrazia babesteko ezinbesteko erreminta gisa. Joxemi Zumalabe Fundazioaren kasua eta 18/98 sumarioaren barruko auzipetzea abiapuntutzat hartuta, antzerki-fikzio hau prozesu judizial horretan oinarritzen da eta, horrez gain, desobedientzia zibilaren historian eta haren azken aurrerapenetan murgiltzeko bidaia bat eskaintzen digu.*

La obra de teatro DESOBEDIENTES 18/98 hace universal lo concreto y nos hablará de la desobediencia civil, no sólo como instrumento compatible con la democracia y sus principios, sino como herramienta imprescindible para protegerla. Tomando como punto de partida el caso de la Fundación Joxemi Zumalabe y su procesamiento dentro del sumario 18/98, esta ficción teatral se basa en este proceso judicial y además nos ofrece un viaje para adentrarnos en la historia de la desobediencia civil y sus últimos avances.



MAIATZAREN 15ean MAYO

# El encargo. LA RED TEATRO

A las 20:30ean Sarrera / Entrada: 10€

Jatorrizko ideia / Idea original: **Juanma Cano** Zuzendaria / Dirección: **Mikel Areitiourtena** Antzezleak / Intérpretes: **Maite Lorenzo, Ricardo Izaguirre, Juanma Cano.** Iraupena / Duración: **70 min.**

*La Red teatroak, umorez eta dramaz, itxaropenez eta etsipenez beteriko testu bat kontatzen digu, mundu kontrajarriez eta baita manipulazioaz ere. Istorioak argitaletxe garrantzitsu baten bulegoetan kokatzen gaitu. Egun horretan, elkarrizketa pertsonal bana egingo zaie idazle arrakastatsu izateko bi hautagairi, eta biek bultzada emozional eta ekonomikoa behar dute beren bizitzak zuzentzeko. Azken bahera iritsi diren azken bi pertsonak dira. Nork jasoko du nobela bat idazteko enkargua? Prest egongo al dira beren ideiei uko egiteko argitalpen-kontratu garrantzitsu batengatik?*

La Red Teatro nos cuenta, en clave de humor y también de drama, un texto de esperanzas y desesperanzas, de mundos opuestos e incluso de manipulación. La historia nos sitúa en las oficinas de una importante editorial el día en el que se llevarán a cabo sendas entrevistas personales a dos aspirantes a escritores de éxito, ambos necesitados de un impulso emocional y económico para enderezar sus vidas. Son las dos últimas personas en llegar a la última criba. ¿Quién recibirá el encargo de escribir una novela? ¿Estarán dispuestos a renunciar a sus ideas por un importante contrato editorial?



# Sarrerak | Entradas

**Sarrerak aurretik erosteko: Abenduaren 11tik**

**Kutxabank-eko orotako kutxazainetan** edo **www.kutxabank.es**

- **Lobiano KulturGunean**, Goienkale 10
  Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 21:00etara

**Venta anticipada de entradas: Desde el 11 de diciembre**

**En los cajeros multiservicio de** Kutxabank o en **www.kutxabank.es**

- **En Lobiano Kulturgunea**, Goienkale, 10
  De lunes a viernes, de 9:00 a 21.00h.

Helbidea | Dirección

**Iparragirre z/g - Ermua - 48260 (Bizkaia) | Tfn. 943 708 700**
**www.ermua.es/ermuantzokia**
**ermuantzokia@udalermua.net**

AYUNTAMIENTO DE ERMUA
ERMUKO UDALA

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

KULTURA ETA IZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜÍSTICA

ermuapuntocultural
ermuapuntukulturala

ermuantzokia